


Bakoitzarena



UXUE APAOLAZA



PAULA ESTÉVEZ

Askok izan dugu aborturen bat, nahita batzuk, nahigabe beste batzuk. Nirea azken horietakoa izan zen, haurdunaldiak hiru hilabete egin zituenean. Kontsultan ez zen hitza aipatu. Berehala pasa nintzen hirugarren pertsonara, niretzat ez zen errepresentazio baten ikusle ulerkor. Bene-benetan ulertzen dut hasieran hala behar zuela, askorentzat berri lazgarria da, eta heriotza baten berri eman balute bezala jokatzen zuten. Tonua ez zen arindu handik aterata ere. Eta ni oso lasai nengo: “Ez da larria, eskerrak”, pentsatzen nuen. Bi pastilla, mina, baina mugatua, eta kito. Umea edukitzeko prozesuan pauso bat gehiago. Ez hain ingurukoek dolumin mezuak bidali zizkidaten, ingurukoak adi ibili ziren nire lasaitasuna ukazio faseren bat ote zen. Amak eta ahizpak gaua eta eguna pasa zuten nirekin, eta min-momentua kenduta (eta motza izan zen, behar zen guztia irentsi nuen hala izan zedin), nire bizitzako une zoriontsuetako bat bilakatu zuten, ondo pasa baikenuen elkarrekin. Alegia, doako abortu seguru bat oso gauza lasaia izan daiteke. Baita aukeratua denean ere.

Berriki, gaiaz berrikeretan aritu ondoren, lagun batek *Abortos felices* fanzinea oparitu zidan. Egileak, Elisabeth Falomirrek, aukeratutako abortuak pozgarriak,

kulpa-sentimendurik gabeak, are ospatzekoak izan daitezkeela aldarrikatzen du. Eta testuak gorputza alaitu zidan. Egia da abortuak dibertimendu bat ez izateko arrazoi asko daudela, abortua oztopo-segida askotan dramatikoak bilakatzen dutenak. Hainbat lekutan legez kanpokoa izateak milaka emakume hiltzen ditu edo uzten ditu ondorio atzerazinekin. Titularrek abortuaz kontaktu diguten azkenekotako gauza izan da abortua legezkoa den Madrilen emakume batek ezin izan duela ospitale publiko batean abortatu. Hori egiten duten klinika batera bideratu zuten. Eta kontakizunaren berri izan dugu emakumeak etsi ez duelako, norbaitek entzun dion arte. Eta horrez gain, abortu hori terapeutikoa zelako. Amaren bizitza zegoen jokoan. “Nire lanbidea dena izanik, lan-kide batzuek hari batzuei tira, eta eban-kuntza arratsalde hartan bertan egin ziezadaten lortu zuten. Baina osasunarloan lan egiten ez duten emakumeak? Ba etxera joan, eta bizpahiru egunez egongo zara zain, odolusten eta zangoak estu, fetua oraindik bizirik edo hilik dagoen jakin gabe” dio protagonistak. Batek titularra lortzen duenetan gertatu ohienez, baten kontakizuna beste milaka emakumerena dela azaleratu da. Titularra lortu ez duten hamaikarena. Ez

dirudi abortuari bide publikotik ekiten diotenen hori egingo dioten lekura iristeko ibili beharrekoa festa baten atariko denik; zortea baldin baduzu, txarra, klinikaren aurrean iraindu egingo zaituzte, edo beldurgarriago, otoitz egingo dizute; otoitzak botako dizkizute.

Eta horren erdian, garrantzitsua iruditzen zait norbaitek gogoraraztea abortua, berez, alai ere izan daitekeela: horretarako zenbait baldintza (esku-bide) bermatu behar dira. Lekukotza bakoitzak erakusten digu, gainera, abortuaren aurrean jokaerak fintzen. Falomirrena irakurtzen ezin nuen gogotik atera 2014ko azal hura: “Nik ere abortatu egin dut”. Maite Asensio Lozanok hamar emakume (María Jesús Berrotaran, Idoia Eizmendi, Mari Luz Esteban, Gema Lasarte, Monika Sojo Plazaola, Sorkun Rubio, Ana Etxarte, Alaitz Tresserras, Hegoa Ugalde eta Ekiñe Zurutuza) beren abortuez hizketan jarri, eta *Berria* egunkarian argitaratu zuen haien kontakizuna. Ez du zertan pozgarria izan, alai... baina izan dadila emakume bakoitzaren berezitasunen arabera, ez abortatu ahal izateko ibili behar izan dituen zailtasunen, horien ondorioen eta abiapuntua dena izanik ere beti kulpara iristen diren diskurtsoen arabera. Izan dadila, behintzat, gurea. ●